

# Orion

Fernando Morillo

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa  
2000



Zumaiaiko Udala

*enkar  
txanpa*



# Orion

Fernando Morillo

Julene Azpeitia 13. ipuin lehiaketa

2000

2. saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Fernando Morillo (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Sinetsi egin nizun. Behin baino gehiagotan esan zenidan, labur eta emeki. Maite ninduzula. Ez dakit nola ez nintzen konturatu. Maite ninduzula, hori esaten zenidan. Abisatu ninduten. Zu uzteko. Zu ahazteko. Baina nik sinetsi egin nizun. Sinetsi egin nahi nizun. Jakingo bazenu...

Ordea, orain ez dut garbirik ikusten. Orain dena da ekaitz arrea. Ekaitz paradoxikoa eta absurdua.

Hala ere, gogoratzen dut. Zenbaitetan gogoratzen dut. Behin, maitemindu egin nintzen. Nolanahi ere, askotan ezin zaitut lehen bezala oroitu. Nire malkoek zimel eta lauso bihurtu dute zure irudia.

—Merkealdian nago —esan nizun orduan. Hitz egiten genuen lehendabiziko segundoa zen. Diskotekako argi artritiko eta geldigaitzek jolas egiten zuten zure aurpegian. Oso xeble zeunden. Ez nuen ezer espero, egia esan. Gau hartako hirugarrena izango zinen. Hirugarren porrota, esan nahi dut. Mekanikoki joan nintzaizun. Ni nekatuta nengoan eta zu oso polita zinen.

—Zer saltzen duzu? —horixe bota zenidan, jada alde egitera nindoala. Ustekabean harrapatu zidan horrexek. Mespretxuz ez esateak, alegia. Distira bihurri bat sumatu nuen zure begietan, dir-dir. Harritu egin ninduzun. Zer saltzen nuen? Baina ezin nion pentsamenduari lekua utzi. Arriskutsuegia zen.

—Ni neu saltzen naiz —burua makurtuta daukan txakurraren modura esan nuen. Ez umiliaturik, nazkaturik baino. Zure arbuioa, denbora kontua baino ezin zen izan—. Ia debalde. Zu zarelako.

Barre egin zenuen. Oihuka ari ginen ia. Diskotekako musika hark (horri musika dei badakioke) ez zigun beste aukerarik uzten. Ingurua aztertu nuen une batez. Ez nuen ulertzen zer egiten zenuen oraindik han, ni bezalako alproja batekin hizketan. Nik kristoren aitzurra neukan, zu aspertuta zeunden. Loteriarekin hasi nintzen pentsatzen. Ez nuen sekula santan loterian jokatu. Gau hartan, alabaina, gau hartan sari nagusia tokatu zitzaidala uste izan nuen. Neska bat etorri zitzaizun. Koadrilako laguna, jakin nuen gero.

—Ba al zatoz? —galdetu zizun. Erreskate-taldekoa zen, nabariro. Sirena baino ez zitzaion falta, io-io-io, buru gainean. Garbi zegoen, «Ba al zatoz?» horrek, egiatan, «Zu salbatzera etorri naiz. Bidali ezazu tipo hori haizea hartzera» esan nahi zuela. Nik irribarre egin nion eta betortzak erakutsi nizkion, nire baitako otsoa ateraz. Berak irribarrea itzuli zidan, burua apur bat alboratuz. Jatetxe txinatar bateko zerbitzarien moduan eta «izorra hadi» sotilena esanez bezala— Joan egin behar dugu, Maider.

Maidar. Maidar zu zinen.

—Segiozue. Ni pixka bat gehiago geratzen naiz —jakinarazi zenion. Zure lagunak bekainak jaso zituen bat-batean. «Geratu?», esaten zuten begi haiek, ulertu ezinik. Jarraian niri begiratu zidan, «Honekin?» adieraziz bezala. Nik berriro egin nion irribarre. Berriro erakutsi nizkion betortzak. Baina zuri begiratu nizun segidan, nik ere ez baitzintudan ulertzen. Lehen iruditu zitzaidan baino oraindik ederragoa zinela konturatu nintzen—. Bai, bai. Segi lasai. Ez egon nire zain; moldatuko naiz.

Bakarrik geratu ginen. Bakarrik, dantza ero-amorrotuan zebiltzan milioi bat pertsonen artean. Tzunda-tzunda-tzunda. Aingerua ematen zenuen. Aingeru pagano eta bikaina. Ikaragarria.

—Maidar duzu izena —azaldu nuen, zerbait esatearren.

—Bai.

—Ni Beñat naiz.

—Ba, Beñat, erosi egiten zaitut.

Amarrua nondik agertuko nengoen. Txantxetarako gogoia zenuen? Adarra jotzeko? Lagunengandik libratu nahi zenuen? Ez dakit. Nirekin jarraitu zenuen, ostera. Dantzara joan ginen. Nirekin joan zen batek ikusi egin gintuen eta keinuka hasi zitzaidan. Badakizu, betiko zera horiek: gaur busti egingo nuela eta horrelakoekin. Kasu putarik ez nion egin eta zurekin jarraitu nuen, dantzan.

—Leher eginda nago —esan zenidan halakoan. Nabaritzen zitzaizun. Irteerako bidea seinalatu nizun, hori nahi al zenuen galdetuz bezala. Baietz esan zenidan begiradaz, erabaki egokia zela. Egokiena. Diskoteka-argiez blaituriko begirada izan zen zurea, txinpartez eta etsipenez josia. Atea ireki nizun.

Orduantxe hasi nintzen urduritzen. Eredu ezezaguna zinen eta ez nuen maparik.

—Zergatik ez dugu tontor hori igotzen? Izarrak ikusiko dira —proposatu zenidan. Egia zen. Han goitik bista ezin hobea egongo zen. Zure atzetik joan nintzen. Izarrak primeran agurtzen gintuzten, morse propio eta bitxi batean zerbait esan nahiko baligute bezala. Zuk izarrei begiratzen zenien. Nik ez nuen izarrik behar. Nik zuri begiratzen nizun. Zurekin nengoen eta gustura egoten hasia nintzen. Zerbait egin behar nuen. Horretaz konturatu nintzen bat-batean. Bestela zutaz maiteminduko nintzatekeen eta ez nuen nahi.

—Oso gozozalea naiz —jakinarazi zenidan jada tontorrean geundela, lurrean etzanda eta zeruari begira. Biok— Ezin naiz gozoki bakar batekin ase — irribarre egin zenuenean, nire bihotzak jauzi nabaria eman zuen. Zer esan nahi zenuen, ordea, bakar batekin ez zinela asetzen esatean? Sexuaz ari ote zinen? Beste mutil batzuek? Besterik gabe esandako zerbait zen? Printze txikiaren bila hasi nintzen zeruan, laguntza eske. Baina ez zen agertu.

—Horiei, Izar-taldea esaten zaie —esan nizun, zeruan ezagutzen nuen astro bakarrenetakoak seinalatur—. Pleiadeak. Orion ehiztariak harrapatu nahi omen zituen eta jainkoek...

—Harrapatu... zertarako? —eten zenidan. Ondo baino hobeto imajinatu zenuen zertarako. Zure begiradak ederki adierazten zuen.

—Beno. Pleiadeak ez dakit noren alabak ziren, eta oso politak omen ziren. Honegatik nahi zituen Orionek. Pleiadeek jainkoei laguntza eskatu ei zieten, eta haiek, jainkoek, Orionen irrikak ekiditeko, lehendabizi uso eta gero izar bihurtu zituzten. Izar-talde. Baina Orionek ez zuen etsi. Beraien ezkerretara dagoen hori da. Bai, hiru izar jarraian dituen hori. Eta oraindik atzetik ari zaie. Oraindik... eta betiko.

Une batez egon zinen hitzik esan gabe. Gero niri begira jarri zinen.

—Zuk ere egingo zenuke? —galdetu zenidan.

—Egin? Zer egin?

—Nire atzetik ibili. Betiko —arriskutsuegia zinen, Maider. Horrelako gauzak ezin dira galdetu. Ez ezagutu eta bi ordura, behintzat. Ez nekien zer erantzun, baina begira zintudan oraindik. Zu ezustean harrapatzea erabaki nuen itsumustuan.

—Hori baiezkoa zen? —galdetu zenidan berriro. Serio zeundela iruditu zitzaidan eta ni larritu egin nintzen.

—Hori musu bat zen —erantzun nizun, kezka pitin batez. Irribarre egiten ahalegindu nintzen, baina idorreriak jotako baten keinua izango zen ziurrago.

—Ez —pixka bat agondu zinen eta hurbildu egin zintzaizkidan. Zure begiek kolore bihurritz jantzi ziren—. Hori ez da musu bat. Musu bat hau da —nire gainean jarri zinen, zangalatraba. Izar guztiak estali zenizkidan. Ez zitzaidan axola, ordea.

Ez ginen musuez harago joan. Musu suharrak, hori bai. Eta zu gainean izanik, eta geldi egon gabe gainera, zerbait gehiago egongo zela ere pentsatu nuen orduan. Izu apur batez, onartuko dut. Oraindik gozokien kontu horrekin bainengoen. Zenbat gozoki beharko ote zenituen? Zenbat eskaintzeko gai izango ote nintzen ni? Behin bazen ere asmatuko ote nukeen? Alabaina minutu batzuek besarkatuta egon ondoren, erlojua begiratu zenuen eta jaiki egin zinen.

—Etxera joateko ordua da.

—Etxera —errepikatu nuen nik, oraindik etzanda—. Mundua da nire etxea —batzuetan horrelako tontakeriak esaten ditut. Zuk barre egin zenuen.

—Bai, bai. Nirea ere bai. Baina ez banaiz joaten gurasoek bidali egingo naute.

—Mundutik —jarraitu nuen nik.

—Gauetik —zure arropa txukuntzen hasi zinen, han-hemengo zimurrak leunduz—. Bazatoz?

Mikrosegundo batean tentetu nintzen.

—Bai.

Behera egin genuen, diskoteka aldera. Autoa nuen han. Eramatea nahi al zenuen galdetu nizun.

—Autorik baduzu?

—Beno... Nolabait. R-12 bat.

—Joño. Ba, ondo, ezta?

—Bai. Ondo.

Banuen autoa, bai. Bosgarren eskuko R-12a. Bosgarren eskukoa gutxienez. Askoz garai hobeak ezagutu zituen makina zen, ezbairik gabe. Hegazkin supersoniko baten soinua ateratzen zuen eta asto herren baten abiaduran mugitzen zen. Mugitzen zenean. Lotsa apur batez seinalatu nizun.

—Hauxe da nire... gurdia —lurrari begira esan nizun.

—Horixe gurdia! —jaulki zenuen karkara ozen batez. Segituan, ordea, zuritzen hasi zinen— Beno, ez dago horren gaizki ere —irribarrea, hala ere, ahotik alde egin nahian ari zitzazun—. Gurpilak-eta baditu, behinik behin.

Susto ederra hartu zenuen martxan jarri nuenean. Ta-ta-ta-ta-krak! DAUNB!

—Zer... zer izan da hori? —leku guztietara begiratzen zenuen, izaturiko hamster txiki bat bezala.

—Lasai, hori normala da —egia zen—. Martxan jartzean egiten duen zarata da.

—Aaa —hori bakarrik asmatu zenuen esaten. Seguru nago, une hartan, ez zeniola hain primerakoa iritzi nik autoa izateari. Horrelako autoa, bederen. Lehendabiziko unean errespetu galanta jartzen zuen nire R-12ak. Edozein modutan, berehala ohitzen zen jendea eta dibertigarri bihurtzen zen azkenerako. Errusiar-mendi eta txoke-autoen arteko fusio sinbiotikoa eta harrigarria zen.

—Non bizi zara?

—Kanpoko aldean. Hortik joanda —norabide bat adierazi zenidan. Kalea aipatu zenuen gero.

—Erredios. Hori lekutan dago —harritu nintzen ni.

—Beno. Ez da hainbesterako ere. Ordubeteko ibilaldia —kalkulatu zenuen.

—Oinez etorri al zara?

—Ez. Lagun baten autoan. Lehen bila etorri zait ba?

—Bai.

—Ba, harekin —horrek esan nahi zuen, ez bakarrik nirekin geratu zinela, baizik eta autoan itzultzeko aukera ere kolokan utzi zenuela. Nigatik?

—Baina zuk ez zenekien nik autoa nuenik —azaldu nizun.

—Ez.

—Eta izan ez banu?

—Ba, hatza jarriko nukeen. Autostopa. Edo oinez joango nintzatekeen.

—Bai?

—Beno, nirekin etorriko zinatekeen, ezta? —begirada bihurria zuzendu zenidan.

Ez nuen erantzuteko astirik izan. Ta-rra-ta-tat-DUN! R-12a bide erdian geratu zen. Eskerrak ordu txiki horietan errepide haietan zebilen auto bakarra nirea zen.

—Hau ere... hau ere normala da? —baiezkoa esperoko bazenu bezala galdetu zenidan.

—Beno...

—Ez, ezta?

—Ez —berretsi nizun. Ez zen normala. Ondo ibiliz gero, behintzat. Larrialdietarako argiak piztu nituen eta berriro ahalegindu nintzen R-12a martxan jartzen. Baina baita zera ere. Kapota jaso nuen, begiratu bat emateko, mekanikaz ideia putarik ez neukan arren. Itxura egin behar nuen, alabaina. Apur batez, behinik behin.

—Maider... —hasi nintzaizun azkenean. Berehala ulertu zenuen.

—Lehen galdera bat egin dizut.

—Galdera bat?

—Nirekin oinez etorriko al zinatekeen. Uste dut erantzuteko aukera aproposa daukazula —neska azkarra benetan.

Autoa bazterrera eraman genuen, nola hala, eta elkarri begira geratu ginen. Musu arin bat eman zenidan.

—Ordu erdira baino ez dago hemendik —jakinarazi zenidan.

Bai. Kaka zaharra ordu erdira. Ordu erdia zure etxeraino. Baina nik gero itzuli egin behar nuen. Eta duro putarik gabe nengoen taxiren bat-edo hartzeko. Ez nuen, alta, ahoa ireki. Egonariz hartzea erabaki nuen. Besotik heldu zenidan, ezkon berriek egiten duten moduan. Hala ere, zentzuzko distantzia bat mantendu zenuen bion artean. Tipi-tapa abiatu ginen.

Halako batean, pixka bat gehixeago hurbildu zintzaizkidan. Hala eta guztiz, plazerekoa baino, beldurrak eragindako mugimendua iruditu zitzaidan. Alboko hormei begira zeunden.

—Zer dira horma hauek? —ez nuen ezagutzen hiriko alde hau.

—Hildakoentzat dira —errezeloa nabari nuen zure tonuan.

—Hildakoentzat? —ez nuen lehendabizikoan harrapatu. Garbiago ere esan zenezakeen, ba.

—Hildakoentzat, bai. Hilerria da.

—Aibalaostia! Hilerria al dago hemen? —orduantxe iritsi ginen ate aurrera. Burdinazko barra batzuek osatzen zuten. Barrura begiratzera hurbildu nintzen. Zuk atzerantz bultza ninduzun.

—Ez —erregutu zenidan. Une horretan bertan, zorioneko zarata bat entzun zen; karraskaren bat, animalia txikiren bat, auskalo. Zorionekoa diot, ze, eragin zuzena izan baitzuen zugan. Besarkatu egin ninduzun—. Zer zen hori?

—Lasai —Humphrey Bogart baino ikaragaitzago azaltzen ahalegindu nintzen, «oi, ez kezkatu, baby, zure bihotzaren taupadak izango dira», neurea ederki azkartua nuen arren— Katuren bat-edo seguruenik —eta barrutik, otoitz egiten zera baino gartsuago, zarata gehiago egon zitezten. Edo lurrikararen bat. Edo txakur basatiak. Edo zonbiak! Berdin zitzaidan. Edozer gauza, zu gehiago hurbil zenkizkidan. Gaua, ordea, mutu baino mutuago mantendu zen. Putza. Humphreyk beste aukeraren baten zain egon beharko zuen.

—Goazen —ordena bezala bota zenuen.

Kale inguru haiek etengabe errepikatzen zirela iruditu zitzaidan. Guztiak berdin-berdinak ziren, hara. Kale bat eta hurrengo eta hurrengo. Zu, ordea, moldatzen zinen labirinto hartan eta iritsi ginen azkenean. Ez zen ezer berezirik gertatu. Tamalez, noski. Eskerrik asko, egongo gara, bai, bai... eta kito. Musu bat eman zenidan kopetan eta atea zeharkatu zenuen, niri beste ezer saiatzeko astirik eman gabe.

Nire telefono zenbakia eman nizun —zuk ez zenidan zurea eman— eta dena ahaztea erabaki nuen. Deituko ez zenuela seguru nengoen. Ematen den musu bakarra kopetan ematen bada... Nik ez nekien horren inguruko estatistikarik edo ikerketarik egongo ote zen. Seguru baietz, jendeak gauza xebleagotan ere galtzen bai baitu bere denbora. Dena den, nik ez nuen, bederen, horrelako ikerketarik ezagutzen. Edonola ere, ez zitzaidan oso seinale ona iruditu. Horrelako ibilaldi baten ondoren, bekokian emandako musu bat baino zertxobait gehiago merezi nuen.

Hurrengo egunetan, espero bezala, ez zenuen hots egin.

—Hobe horrela —lagun batek, lbonek, esan zidan hori—. Ezagutu ez banuen ere, buruarin hutsa iruditu zitzaidan. Orain ahaztu eta bakea.

—Bai —neu ere onena horixe zela sinetsita nengoen.

Bi aste igaro nituen zure berririk izan gabe. Konbentzituta nengoen ez zenuela deituko. Hasiera-hasieratik. Haatik, horrek ez zuen barneko mina arintzen. Horregatik harritu nintzen hainbeste, aita gelara etorri zitzaidanean, irribarretsu.

—Beñat.

—Bai?

—Bisita bat daukak.

—Bisita bat? —Ibon edo Luken izango zirela pentsatu nuen, hirurok ordenagailuko programa bat egiten ari baikinena eta nik neure lana erakutsi behar bainien. Ikusi egin nahiko zuten. Zergatik egiten zuen aitak barre, ordea?

—Bai. Bisita bat. Neska bat etorri zaik.

—Neska bat? —ostia. Neska bat? Nola neska bat? Etxean? — Seguru?

—Hara —aitak barrez jarraitzen zuen—. Nik baietz esango nikek. Ondoezak hagoela esango zioat?

—Ez, ez! Esan oraintxe noala! —eta gelako atea itxi nuen. Nire itxura aztertu nuen. Zuloz josiriko elastiko zahar bat eta paleolitiko garaiko praka motzak. Elastikoa esku batez hasi nintzen kentzen eta prakak bestearekin, azkarrago egiteko asmoz. Elastikoak burua estaltzen zidanean, oreka galdu eta apal baten kontra egin nuen estropezu. Txikitan irabazitako garaikur madarikatu bat —«Xake-txapelduna»; orduan bai, azkarra nintzen— erori egin zen eta ezkerreko behatz lodia opildu zidan. Gorila-oihu basati bat irentsi behar izan nuen. Abisua izan zen. Apur bat lasaitu behar nuela konturatu nintzen. Armairu guztia nahasi nuen zerbait aurkezarriaren bila. Bakero batzuk eta nire elastiko berriena jarri nuen.

Nor izango ote zen? Beharbada ikasgelako norbait apunte eske. Beharbada...



Zu zinen. Maider.

—Beñat?

—Maider! —txundituta geratu nintzen, zer esan ez nekiela. Aita han agertu zen, beharbada aurkezpen baten zain edo. Ez. Sorry baina ez— Aita, kanpora noa buelta bat ematera, e?

—Segiok, motel. Segiok.

Etxetik irten orduko hasi nintzaizun galdezka.

—Nola demontre jakin duzu non bizi nintzen?

—Nitaz lotsatzen zara, ala?

—Zutaz lotsatu? —harritu egin nintzen— Zer ari zara, baina?

—Tonuagatik diot. Txarrerako hartu baldin baduzu zure etxera etortzea...

—Ez, ez. Baina ez nuen espero. Ez zenidan orduan deitu eta gehiago deituko ez zenidala pentsatu nuen.

—Ba, etorri egin naiz.

—Ikusten dut.

«Nora?», adierazi nizun keinu batez, bebarrutik irten ginenean. Ez nekien zer nahi ote zenuen. Saihesbide aldera abiatu zinen. Han leku bikaina zegoen paseatzeko. Edo behar zenerako.

—Oso lanpetuta ibili naiz —justifikatu zinen—. Horregatik ez dizut lehenago deitu.

—A.

—Baina banuen gogoia zurekin egoteko.

—A —nik ez nekien zer esan behar nuen eta egoera horretan, onena isilik egotea zela iritzi nion. Aurrera jarraitu genuen, metro bateko distantziara. Zu ez zinen gehiago hurbildu, hasieran, eta nik ez nekien zer espero nezakeen. Zerbaitek banatzen gintuela zirudien. Beiraz egindako horma sendo bat tartean izango bagenu bezala.

—Ondo pasatu nuen aurrekoan —hor isildu egin zinen, nire hitzen zain egongo bazina bezala.

—Bai, nik ere bai.

—Badakizu? Bi sarrera dauzkat antzerkirako. Etorri nahi al duzu? —galdetu zenidan, niri begiratu ere egin gabe. Urrun zeuden zure begiak. Orain uste dut urduritasuna zela.

—Zergatik? —jakin nahi izan nuen.

—Zergatik antzerkira? Beno, antzerkia ez baduzu gustuko alda...

—Ez, ez —zuzendu nuen—. Zergatik ni.

—Zu?

—Bai, ni. Zergatik ni —horrela hasi nintzen. Ez dakit nola ez nintzen isildu eta zetorrena besterik gabe hartu. Bizitza berez da nahasia. Ulertu nahiarekin gehiago konplikatzek, buruhaustek baino ezin zizkidan eman—. Zergatik etorri zara orain. Ez dut ulertzen. Ni ez naiz Tom Cruise prezeski. Ezta Voltaire

modukoa ere, argia eta ateralditsua. Harroa bai, baina ez ergela —hor zure aurrean jartzen saiatu nintzen, zuzenean begira zeniezadan—. Zergatik?

—Eta zergatik ez, hara? —esan zenuen apur bat jostalari— Esan dizut ondo pasatu nuela.

Aztertu egin zintudan, poliki, nire denbora hartuz. Denbora luzea. Elastikoa. Ezinezkoa zela iruditu zitzaidan. Emakume bikainegia zinen, zu nigana etortzeko.

—Zergatik etorri zara nigana? —jokaera burugogorra izateaz gain, lerroarena ere bazen, aitortzen dut. Baina sentimendua libre utziz gero, banekien ondoriozko urradura sakonegia izan zitekeela. Meategi bat lurraren erraiak higatzen. Azkenean ere, onartu egin zenuen, hasperen batez. Hasperen goibel batez. Burua makurtu zenuen.

—Aspertuta nengoen. Eta norbait behar nuen —aurpegia jaso zenuen orduan—. Baina egia nioen. Zurekin ondo pasatu nuen. Benetan lasai egon nintzen, beste inorekin ez bezala.

Neu ere pitin bat baretu nintzen. Egia zela zirudien.

—Aizu, beste gauza bat: nola jakin duzu nire helbidea?

—O. Ba! —garrantzirik ez zuela adieraziz bezala azaldu zenidan— Sarearen bitartez. Internet, badakizu. Telefono zenbakia izanik oso erraza da helbidea lortzea.

—A —joño, joño. Ondo zegoen jakitea. Kultura pixka bat ez zen inoiz gaizki etortzen.

—Beno, zer? Antzerkira etorriko zara ala ez? —irrika sumatu nizun hitzetan.

—Bale. Joango naiz.

Horrela hasi zen guztia. Antzerki bat, mendi buelta bat, film bat. Dena oso azkar. Musu gehiago. Besarkada gehiago. Eta beldur izugarri bat. Izan ere, Maider, zu ez zinen birjina. Zurekin irtendako mutil batek nahikoa garbi adierazi zidan, zuk eta biok elkar ikusi ez genuen bi asteko tarte horretan. Zurekin irteten nintzela pentsatu zuen, nonbait. Urko izena zuen, uste dut.

—Maidar laostia beroa duk, e? Behin, hiru aldiz jardun gintuan gu. Ia garbitu egin nindian! Gosez behintzat ez haiz hilko. Baina hori jakingo duk ja.

Eta nik baietz, bizkartzain gogorrenaren begiradarekin, hotza eta harroa.

—Noski. Noski baietz —sobera nekiela esanez bezala.

Ez, zu ez zinen birjina. Baina ni bai. Horregatik, egun hartan, zure gurasoak ez zeudela-eta —ia astebukaero irteten omen ziren—, ea zuen etxera joan nahi al nuen esan zenidanean, nerbioak dantzan hasi zitzaizkidan. Baina, zer egin nezakeen? Joan egin nintzen.

Suposatzen dut antzemango zeniola. Nire lehendabiziko aldia zela, esan nahi dut. Ez zenuen ezer esan, ordea, eta niri, zure izterren artean korapilaturik, fantasiako mundu batean erori nintzela iruditu zitzaidan. Ondo gogoratzen dut zer nolako dardara izan nuen hankatan. Horrela izango al zen? Ez al zen izango? Ondo ari ote nintzen? Amaitu genuenean, beno, ez zen kristorena ere izan. Alderantziz, nahikoa arrunta, jokatuko nuke. Seguruenez, nire imajinazioak, zaldi basati baten antzera, zerbait gehiago egon behar zuela pentsatu zuen.

Suziriak eta eztandak gure inguruan, fiiuuu-fiiuuu eta banba-banba. Baina ez. Hori baino zertxobait trauskilagoa izan zen. Ez, ez zen kristorena izan. Edozein modutan, niri gustatu egin zitzaidan. Izan ere, sarritan gogoratzen dut lehenaldi hura.

Jarraian etorri zena, hori bai, ez zitzaidan atseginegia izan. Nik etzanda jarraitzen nuen, zure logelako sabaiari begira, beste nonbait. Orionekin nengoen. Diskoteka ondoko tontor hartan ikusi genuen Izar-taldearekin. Ilargiarekin. Ezin nintzen mugitu. Eginez gero, zerbait apurtuko nuen sententzia nuen. Baliotsuegia izan zitekeen zerbait. Mundua xaboi-burbuila puta bat izango balitz bezala eta nik, nire baldartasunarekin, apurtzeko zorian egongo bainintzen. Hain ondo nengoen orduan.

Zu aldiz, zu, Maider, jaiki egin zinen eta naturaltasun osoz hasi zintzaizkidan hitz egiten, janzten zinen bitartean.

—Gero liburutegira joan behar dut liburuak itzultzera. Eta botikara ere bai, pare bat gauza erosteko.

Hau eta hori eta bestea. Zer dakit nik. Minutu batzuk lehenago larrua jotzen ibili ginen, demonio! Zuk, ordea, ez zenion jada batere garrantzirik ematen, antza. Nik zure besarkadaren beharra sentitu nuen bat-batean. Ez nuen, noski, ezer esan. Nik ez nekien zein ziren jarraitu beharreko pausuak une hartan. Ez ote zenuen gozoki gehiagorik behar? Iparrorratza ipar-poloan bezala nengoen, nora jo ez nekiela, baina noranzko bat markatu nahian. Politikari bat diskurtso gabe bezala. Bakarrik sentitzen nintzela nekien soilik. Eta mingarria zela.

Zalantzatan hasi nintzen. Zure portaera hotz hori ohikoa ote zenuen galdetu nion neure buruari. Zure aingeru itxurak, aingeru pagano eta erakargarrienaren itxurak, ez zidan hori sinesten uzten. Errugabeegia ematen zenuen, zure irribarre pikaroaren azpian. Nire buruari galdetu niola nioen, ea naturaltasun hori ikasitakoa zenuen, berezkoa, edo urduritasunaren ondorioa ere izan al zitekeen. Nire gabezia, apika? Edo hori ote zen jokaera normala? Haragia ase eta kito?

Baina nire buruak ez zidan erantzuten. Ez nintzen, ba, maitemintzen ariko, ezta? Ostiako galantak merezi nituen. Bo, azken finean, jaso nituen. Gero, jaso nituen. Nireak eta bi. Hori badakizu, ordea.

Lehendabiziko txortaz geroztik, gehiagotan elkartu ginen. R-12a berrogeialdian zegoenez, mendietan, zelaietan-eta ibili behar izan genuen. Baina bost axola. Nik ikasi nahi nuen. Zuri ahal beste gozoki eskaini.

Gauza gehiago ere ikasi nituen. Neska denak ez zaretela berdinak, adibidez. Edo mutilak gezurtero hutsak direla, ausaz. Entzunda neukan, neskek ez zenuela oso gustura hartzen mutilok eskuz masturba zintzategun. Hori esan zidan hainbatek. Ba, ez. Zuri behintzat majo gustatzen zintzaizun. Zenbat aldiz ez ote nuen amaitu eskumuturrak edota hatzak gihar-minez! Amodioa egitera baino, borroka batera nindoala pentsatzera iritsi nintzen.

Baina berdin zidan. Denak berdin zidan. Nirekin gozatu egiten zenuen, hori garbi zegoen. Ez nuen, ordea, zure presentziarik sumatzen. Ez zinen nirekin egoten, nolabait esatearren. Zure plazera inpersonala zen. Besarkatzen ninduzun, musuak ematen zenizkidan eta gehiago nahi zenuela exijitu. Gehiago, eta nahi zenuenean eta nahi zenuen moduan. Nik aztertu egiten

zintudan, baina ez nintzen zure begiradan islatzen. Berdin zidan, ostera. Zurekin nengoen eta berdin zidan.

Paradisu xelege batean nengoen. Azkenean onartu nuen bandera bat zenuela nire buru-gailurrean. Menperaturik ninduzun. Ez nintzen zurekin eroso sentitzen. Barnean, oraindik zergati baten bila ari nintzen. Zergatik ote zenbiltzan nirekin.

—Zurekin oso gustura nago —xuxurlatzen zenidan batzuetan, ezti eta samur. Zure begiradak, ordea, hotz jarraitzen zuen. Hori banekien eta harritu egiten ninduen. Oso sentsazio bitxia zen. Nirekin zeunden, baina egongo ez bazina bezala sentitzen nintzen. Ba al dakizu zer den hori? Zenbaterainoko mina ematen duen?

Eta hala eta guztiz, paradisu nengoela pentsatu nahi nuen. Ohetik jaiki, eta banuen norekin amestu. Gelan aspertu, eta banuen nor irudikatu. Komunean egon, eta banuen norekin kanpaia jo. Baina paradisu jogurta bezalako da: iraungitze-data batek baldintzatzen du.

Ibonek, lehendabizikoz abisatu ninduen lagun hark, berriro errepikatu zidan.

—Ibil hadi kontuz —eta nik baietz. Ez kezkatzeko. De puta madre ari ginela konpontzen. Apenas asmatu nuen.

Ez dakit zergatik edo nola gertatu zen. Dakidan gauza bakarra da, larunbat gau hartan, gaixo zeundela esan zenidala telefonoz. Ez zen lehendabiziko aldia. Azken asteetan beste bizpahirutan ere aipatu zenidan. Baina sekula ez larunbat gauean. Larunbat gauak gure-gureak ziren. Ordura arte, behintzat.

—Barkaidazu. Gaur ez naiz aterako. Ondoezak nago.

—Zer daukazu, ba? —Iarritu nintzen ni. Ikusi nahi baitzintudan. Aste osoa generaman elkar ikusi gabe, eta sekulako gogoak nituen. Zurekin egoteko. Zure gorputzean galtzeko.

—Ez da ezer, lasai.

—Orduan? —animatu nintzen ni. Hain arina baldin bazen...

—Beno, ez naizela hil egingo esan nahi nuen. Baina etzanda egon nahiko nuke. Birusen batek harrapatuko ninduen, seguruenik, eta lo egin nahi dut. Egun batzuetan pasatuko zaidala pentsatzen dut. Sentitzen dut.

—Zer egingo diogu —etsi nintzen—. Lagunekin aterako naiz.

—Bai. Onena izango da. Ondo pasa —opa zenidan.

—Saiatuko naiz. Ea hobetzen zaren.

—Bai. Musu bat.

Kalera jaitsi nintzen. Nire asmoa, esandako horixe bera zen: lagunengana joan eta haiekin berealdiko melokotoia harrapatu. Haatik, betiko lekurantz abiatzean, gogorik ez nuela erabaki nuen. Nirekin nahi zintudala konturatu nintzen, nire heroina propioa bazina bezala eta ni, nahimena zeharo zapuztutako junkiea. Eta bisita egiten banizun? Ez al litzateke ezusteko polita izango? Bai. Zalantzarik gabe. Zure etxea ez zegoen bertan ere, baina ibilaldi bat ez litzaidake gaizki etorriko. Beharko oinez joan. R-12a jubilatuta zegoen

ordurako. Seguru nengoen gustura hartuko ninduzula. Beti bezain hotz, baina gustura.

Hilerria, konturatu nintzen bat-batean. Hilerriaren ondoan nengoen jada. Barruko aldea aztertu nuen barradun atetik. Isiltasuna ikaragarria zen. Ikaragarria bezain ederra. Kandela gorri batzuk zeuden piztuak han eta hemen. Zergatik ziren denak gorriak? Auskalo. Egundoko bakea igortzen zuen leku hark. Beste kaleetan jende dezente zegoen oraindik, hamaika t'erdiak bakarrik ziren. Ez hemen, ostera. Hemen ez zebilen jenderik. Hemen, gaua mututurik zegoen. Atearen kontra jarri nintzen, atsedean pixka bat hartzeko asmoz. Niik! Dra erori nintzen lurrera. Izan ere, atea irekita zegoen, eta nire pisuarekin atzeraino zabaldu zen.

Di-da jaiki nintzen, etxafuegoa ipurditik sartuta bezala. Eta ez nintzen hildakoen beldur, bizidunena baino. Ez ote zen egongo zaindariren bat-edo? Baina, hara, zerbait txarra egin al nuen, ba? Atea irekita zegoen, gainera. Ez zen handik, ordea, inor ageri. Barrurantz egin nuen apurka. Bigarren ate bat ikusi nuen, baina hura ere irekita zegoen. Gero, hilobiak eta hilobiak eta hilobiak. Batzuk loreak zituzten, beste batzuk hautsa baino ez. Gure modu berean.

Zutaz gogoratu nintzen: gaixo zeunden. Ez nuen birritan pentsatu. Nik hildakoak errespetatzen ditut, baina are gehiago bizidunak. Lore sorta handiena hartu nuen.

Jarraian datorrena ondo gogoratuko duzula pentsatzen dut. Ni ez neukan oso garbi zein zen zure bebarrua eta atzera eta aurrera ari nintzen kale haietan. Jendeak harriduraz begiratzen zidan, lore sorta ia ni baino handiagoa baitzen. Azkenean, topatu nuen bilatzen nuen atea. Une batez pentsakor egon nintzen. Pitin bat berandu zen eta beharbada lo egongo zinen. Edo areago, agian zure gurasoak ere bertan izango ziren eta ez jakin nola har zezaketen. Gurasoek, alabaina, ez ninduten hainbeste kezkatzen. Zuk esan zenidan ia astebukaero kanpora joaten zirela. Txirrina jo nuen. Ezer ez. Berriro jo nuen. Eta berriro. Ez zuen inork erantzuten.

Zein bitxia. Lo egongo al zinen? Bizpahiru gehiagotan jo nuen, eta emaitza berbera lortu nuen. Apika beste norabait joan zinen? Senideren baten etxera edo? Ez nuen beste ezer pentsatu nahi. Urruntzen ari nintzela ikusi nuen autoa. Bikote bat zihoan barruan, eta neska zu zinela iruditu zitzaidan. Loreak jaso nituen eta euren atzean ezkutatu nintzen, erdipurdiko Rambo kamuflatu bat bezala. Zure etxera itzuli nintzen, susmo txar batek eramana.

Han zeundeten. Zu eta ez dakit nor zen bestea, ile luzea eta zera baino altuagoa. Musuka ari zineten. Eta ez kopetan, preseski. Ez nintzen mugitu ere egin denboraldi batean. Ezin izan nuen. Zer egin nezakeen? Ez nekien. Humphrey Bogartekin gogoratu nintzen beste behin. Zer egingo zukeen Bogartek nire lekuan? Hara joan eta tipoa akabatu? Maidera akabatu? Biak? Bere burua? Handik mespretxuz alde egin? Azkena, seguruenik. Ezer esan gabe, ostera? Ideia bat izan nuen.

Alboko kalera joan nintzen eta harrapatu nuen mutiko gazteenarengana joan nintzen.

—Hi, aditzen al duk?

—Zer?

—Bi mila pela nahi al dituk? —proposatu nion.

—Nahi, nahi bai. Baina zeren truke? —mesfidati begiratzen zidan. Beno, aldizka niri, aldizka beste zenbait pertsona zegoen lekura, distantzia-eta kalkulatz bezala. Batek daki zer pentsatu ote zuen nintzela. Eta ezingo nioke leporatu.

—Beitu ezak. Hurrengo kalean, bikote bat zegok. Emaiok lore sorta hau neskari, eta buelta hadi.

—Hori bakarrik?

—Hori bakarrik.

—Dirua, lehendabizi —eskua luzatu zuen. Nik erditik moztu nuen billetea eta bat eman nion.

—Beste zatia, bueltatzen haizenean.

—Ekarri lore horiek —eta abiatu egin zen.

—Ei! —oihukatu nion.

—Zer? —itzuli zen.

—Esaiok Orionek Izar-taldea uzten duela.

—Zer?

—Orionek Izar-taldea uzten duela.

—Orionek Izar-taldea uzten duela?

—Horixe bera. Orionek Izar-taldea uzten dik.

—Beno. Hik jakingo duk —eta berriro hartu zuen zurenganako bidea.

Berehala itzuli zen.

—Zeozer esan al dik? —galdetu nion, irrikatsu. Berak esku-ahurra erakutsi zidan. Beste billete zatia eman nion.

—Ezta ezer ere —azaldu zidan—. Loreak hartu ditik eta ahoa ireki dik. Baina ez dik ezer esan. Eta etorri egin nauk.

—Bale. Mila esker, hi. Ea, segiok lagunekin.

Ez nintzen ondo sentitzen. Putakeria bat zen egin nuena. Baina zurea ez zen samurragoa, preseski. Eta orain? Zer egingo zukeen Bogartek orain?

Txoko batean eseri nintzen. Jendea zebilen baina ez zitzaidan axola. Galduta nengoen. Zarata entzun nuen.

—Begira, ama —haur bat zen. Familiarekin zihoan, itxuraz, afariren bat-edo egin ostean. Aita, ama, arreba izango zena eta haurra bera. Nigana seinalatzen zuen txikiak— Begira —Besteek ez zioten jaramonik egiten. Ez zuten nigana begiratzen. Albotik igaro zirenean ere, aurrera begiratzen jarraitu zuten, beharturik bezala. Haurrak zuzen-zuzenean begiratzen zidan—. Ama, ama — amari eskutik tiraka hasi zitzaion.

Ni neure baitan nengoen jada, etxera itzuli beharko nuela pentsatzen. Diru hotsa entzun nuen. Munduarekin sintonizatu nuenean, haurrarekin egin nuen topo. Nire aurrean zegoen eta txanpon batzuk bota zizkidan. Begietara begiratzen zidan oraindik.

—Ogitarteko bat jateko —esan zidan. Ni txundituta geratu nintzen. Eskalea nintzela pentsatu ez zuten, ba! Ez nion ezer esan. Irribarre egin nion eta dirua hartu nuen. Bostehun pezeta zenbatu nituen gutxi gorabehera. Eskuarekin agurtu ninduen—. Agur! Eta izan txintxo!

Lainoak beltzak direnean, haurrak bakarrik ausartzen dira zuzenean begiratzera.

Ez nuen gau osoan lorik egin. Eta hurrengo egunean ere, igandean, nahiko gaizki pasatu nuen etxean sartuta. Ez nuen telefonoa hartu. Pare bat aldiz jo zuen baina ez nuen hartu badaezpada. Nahiz eta jakin, seguruenik, zu ez zinela izango. Astelehen gauean aitak nire gelako atean jo zuen.

—Beñat. —Zer?

—Neska hura berriro —bekainak igo zituen, grazioso izan nahian bezala— Atean zegok. Ez dik sartu nahi.

—Ba, esaiozu ez nagoela. Edo gaixo nagoela. Edo nahi duzuna —aitak kezkatuta begiratu zidan.

—Txantxetan ari haiz, ez?

—Ez —hor joan zen. Bi minutura itzuli zen.

—Beñat, neskak esan dik ez duela alde egingo irteten haizen arte —xelebrea zen aita mezulari bezala ikustea. Ez nuen uste, baina ondo geratzen zitzaion jantzi hori—. Nahi duana, baina azkar erabaki ezak.

Jaiki egin nintzen.

—Azalpen bat zor dizut —horiek izan ziren zure lehen hitzak.

—A, bai? Zer dela eta?

—Ez zaitetz zinikoa izan, Beñat.

—Zinikoa? Ni?

—Sentitzen dut.

—Nik ere bai. Ez dakizu zenbat, gainera.

—Ez nuen uste... baina... pertsona bat ezagutu dut eta... —tipikoa zen. Horrelako zerbait espero nuen; beste batekin maitemindu zinela, ez zenuela nahi baina gauza horiek gertatzen direla eta horrelakoak. Baina nik egia nekien.

—Goizean Urko ikusi dut eta berarekin egon naiz hitz egiten —moztu nizun. Urko. Oso zalea zinela aipatu zidan hura. Gau batean hirutan jardun zenutela esan zidana, bai. Harekin.

—Urko? —zurrun jarri zinen bat-batean.

—Bai. Zure mutila izan zena.

—Urko.

—Urko, bai. Urko. Gertatutakoa aipatu diot. Gaietik.

—A, bai? —urduritu egin zinen. Izan ere, zure aitzakia kolokan ikusi zenuen. Ondo geratu nahi zenuen. Edo behintzat ez gaizkiegi. Eta orain, ezin izango zenuela ulertu zenuen.

—Bai. Mutil txima luze eta altu bat zela azaldu diot. Berak ezagutzen zuen —arnasarik gabe geratu zinela iruditu zitzaidan une batez—. Beharko ezagutu, koadrilakoa zuen eta.

—Ez... beno...

—Aspalditik omen zabilta haren atzetik. Urkok berak esan dit, berarekin ere, txima luze harekin irteteko ibili zinela. Tranpolin edo igarobide bezala. Aipatu dit nola, berarekin zenbiltzala, erraldoi horrengana jo zenuen. Baina ez omen zuen laguna saldu nahi izan. Ipso facto moztu zenuen Urkorekin. Gainontzekoak, nik ondorioztatu ditut.

—Beñat...

—Norbait behar zenuen orduan —jarraitu nuen. Ezin nintzen gelditu—, txima luzea zirikatzeke. Bere laguna ez zen norbait. Oso nabaria ere ez izateko. Urkorekin moztu eta jarraian bere lagunarekin egiteak... kontzientzia garbirik nahi zenuen. Eta bitartean zure burua puztuko zenuen. Horretarako erabili ninduzun. Ezta?

Nik ez dakit zer espero nuen. Banuen, barne-barnean bazen ere, itxaropen apur bat negarrez hasiko zinela, barka eske eta horrela. Agian damutu egingo zinatekeen, eta itzuli egin nahiko zenuke. Nik onartuko ez zintudala sinetsi nahi nuen. Baina banekien baietz.

Ordea, ez. Nahasita egon zinen nik hitz egin bitartean. Berehala, baina, begiratu egin zenidan.

—Beno. Beste era batera esan nahi nizun. Pixka bat samurrago izan nahi nuen. Baina bota egin duzunez, ba, bai. Onartu egingo dizut. Horrela izan zen. Eta? —nik zer erantzun ez nekiela nengoen— Bizitza horrelakoa da. Hori zuk ere badakizu, zure izarrekin eta guzti. Orionek ez zuen ehizarekin asmatu. Esan beharreko dena dago esanda beraz. Ondo izan.

Alde egin zuen atzera begiratu gabe.

Ni txikituta nengoen. Bizitza, baina, eboluzioa ere bada. Kostata apurtu nuen kuskutzarra. Dena, bakardadea, maitasuna, loteria jokoa zen. Irabazteko apustua egin behar da. Baina nik beti daukat okerreko zenbakia.

Ikasteari ekin nion. Nietzsche ari ginen aztertzen. Barregarria zen. Gaingizakia gora, gaingizakia behera. Eta emakumeak ustaz tratatu behar omen ziren. Gizajoa Nietzsche hura. Ia asmatu zuen. Gaingizakiaren ezaugarriak deskribatu zituen; gogorra, gupidagabea, boteretsua, askea. Nik al dakit! Baina usta nork maneiitzen zuen, hor kale egin zuen.

Usta Maiderrekin zeraman. Maiderekin bezalakoek. Eta gizakiok, gainontzekoek, hobe genuen isilik egon.

Gizateriaren garapena zen. Gure ordua amaituta zegoen. Eta kaka. Nik maiteminduta jarraitzen nuen.